



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## PRENTSA-OHARRA

### **LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK EZEZKO IRITZIA EMAN DIO ZUIAKO UDALAREN KONTRATAZIO BATI**

**LEAk uste du kontratuaren xedea ez dela egokia izan eta  
diskriminatzailetzat jo du esleipenerako irizpide gisa sartu  
izana udalerrian erroldatutako jendea kontratatzea**

Bilbo, 2016ko maiatzaren 25a

Palatu kirol instalazioak eta Jai Alai pilotalekua mantendu, kudeatu eta horien sarreren kontrola egin, kirol ikastaroak eman eta enplegua sustatzeko Zuiako Udalak onartutako kontratazio-espedientearen balizko irregulartasun batzuen berri izan zuen LEAk Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren bidez. 2015eko urriaren 28an argitaratu zen esleipena.

Udalerrian erroldatutako jendea kontratatzea sartu zen kontratazio-irizpideen artean 10 punturainoko balorazioarekin eta eskaintza ekonomikoak 80 puntutik 40 puntu zituen.

LEAk uste du kontratuaren xedea ez dela egokia izan, helburu ezberdinak lortu nahi izan dituelako. LEAk azpimarratu du euren artean zerikusirik ez duten zerbitzuak kontratu bakar batean sartzeak mugatu egiten duela eskaintzak aurkeztu ahal dituzten enpresen kopurua eta sartzeko barrerak sortzen ditu. Barrerek interes orokorrerako kaltea dakarte, lehia askearen onurak — hobekuntzak kalitatean, berrikuntza, hobekuntzak administrazioak ordaindu beharreko prezioetan— jasotzea oztopatzen baitute.

Halaber, LEAk ondorioztatu egin du diskriminatzailea dela udalerrian erroldatutako jendea kontratatzea irizpide gisa sartu izana eta erlazorik ez duela Udalak kontratatu nahi zituen zerbitzuekin. Udalaren betebeharra zerbitzuak ahalik eta efizientziarik handienarekin ematea da. Kirol instalazioak mantendu, kudeatu eta horien sarreren kontrola egiteko zerbitzuak emateko efizientziak ez du zerikusirik langileen errolda-lekuarekin. Hortaz, irizpide hori



tokiko enpresentzako kontratu-erreserba gisa erabiltzea saihestu behar da. Bistan denez, LEAk ez du zalantzan jarri udalerriko jendearen enplegua sustatzea, baina uste du lehiari kalte egiten ez dioten tresnak badaudela, helburu bera lortzearren.

Azkenik, LEAk gomendatzen du esleipenerako irizpideen balorazioa birplanteatu eta balorazio subjektiboko irizpideak zehaztu behar direla, gardentasuna eta kontratueta sartzeko berdintasuna bermatzearren eta lizitatzailen babesgabetasuna saihestearren.

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.